

Busworld 2017

Autokar eta autobus iraunkorren belaunaldi berria, Irizar teknologia eta markarekin

Irizar erreferente da munduan autobusen eta autokarren fabrikazioan eta aurten Nazioarteko Autokar eta Autobus Azokan (BUSWORLD 2017) izango da 1.600 m² baino gehiagoko erakusketa espazioekin. Gune horietan bere marka, teknologia eta iraunkortasun estrategiak ezagutaraziko ditu Irizarrek eta merkatu guztietarako esku-agarri dauden produktu eta irtenbide teknologikoen belaunaldi berria ere bai.

4. halleko standean Irizarko autokarren belaunaldi berria ikusi ahal izango da eta, orobat, autokar integral eta hibridoentzat proposatutako irtenbide teknologikoak. Nabarmenezkoak dira Irizar i8a, Irizar i6s berria eta Irizar i4Ha, azken hau bertsio hibridoan.

Bigarren standean Irizarrek etorkizunerako bere apustua erakutsiko du hirietarako giltzak eskuan elektromugikortasun irtenbide integralekin.

Orain gutxi sortutako enpresa berriak, Irizar e-mobility, taldeko enpresa guztien eza-gutza eta esperientzia batzen ditu hirietarako mugikortasun irtenbide osoak sortzeko: Autobus %100 elektrikoak eta azpiegitura sistema nagusiak kargarako, trakzioarako eta energia biltegitutzeko. Guztiak Taldearen teknologia %100 europarrarekin diseinatu eta fabrikatuak eta Irizarren zerbitzuaren berme eta kalitatearekin.

Busworld 2017n erakutsiko diren produktu sorta osatzen dute **ie bus**-ek, 12m-ko hiriko autobusa, eta **ie tram**-ek, 18 metroko autobus artikulatua tram bertsioan, biak %100 elektrikoak zero igorpenekin eta Irizarrek **lehen aldiz aurkeztuko duen** pantografo bidezko karga sistemarekin.

Autobus eta autokar belaunaldi honi eta irtenbide teknologikoei esker (autokar integralak, autobus %100 elektrikoak, II klaseko autokarrentzako teknologia hibridoa hiri- eta hirien arteko zerbitzuetarako) Irizarrek bidaiarien garraio publikoaren behar guztiei erantzuten die, lineaz kanpoko garraioan nahiz publikoan, hirian, hirien artean edo ibilbide luzeetan, eta lider bihurtzen du mugikortasun iraunkorren sektorean.

Irizarrek bere ildo estrategikoak erakusten ditu horrela, eta bezeroekin eta gizartearekin duen konpromiso sendoa. Izan ere, bezeroei eta gizarteari balio erantsi handia eskaintzen die produktu eta zerbitzuei dagokionez, baina diseinua, pertsonalizazioa, segurtasuna, fidagarritasuna eta iraunkortasuna bezalako gai garrantzitsuak ahaztu gabe.

Berritasun hauen guztien MUNDU MAILAKO PREMIERA Irizarren 405 standean egingo da 4. Hallean urriaren 20an 12:00etan.